


## Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 jaitsi dira 2023ko azaroan, aurreko hilarekin alderatuta

**2022ko azaroarekin alderatuta, industria-prezioak % 4,2 jaitsi dira**

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 jaitsi dira 2023ko azaroan, aurreko hilarekin alderatuta. Industria-prezioen azken hamabi hilabeteetako aldakuntza jasotzen duen azaroko urtetik urterako tasa % 4,2 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten duenez, 2023ko azaroan beren prezioetan aurreko hilarekin alderatuta jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 7,1ko jaitsiera) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1,3ko jaitsiera) izan dira. Beren prezioetan hiletik hiler aigoerarik handienak izan dituzten sektoreak, berriz, *Erauzketa-industriak* (% 2,9ko igoera) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 0,7ko igoera) izan dira.

### Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraikiz, *Energiaren* prezioak % 4,7 jaitsi dira 2023ko urriarekin alderatuta. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, berriz, % 0,5 igo dira,

Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioen % 0,5eko igoeraren eta Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioen % 0,4ko igoeraren ondorioz. Bestalde, Bitarteko ondasunen prezioak % 0,3 igo dira, eta Ekipo-ondasunen prezioak, berriz, % 0,1.

Urtetik urtera, 2023ko azaroa 2022ko azaroarekin alderatuta, jaitsierarik handienak honako adar hauetan gertatu dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (-% 25,8), *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (-% 13,2) eta *Industria kimikoa* (-% 6,6). Urtetik urtera prezioetan igoerarik handienak izan dituzten adarrak, berriz, honako hauek izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 11,6), *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuk* (% 8,9) eta *Ura* (% 8,2).

## Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2023

|                                                                  | INDIZEA      | ALDEAREN %  |              |
|------------------------------------------------------------------|--------------|-------------|--------------|
|                                                                  |              | m / m-1     | m / m-12     |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                                           | <b>128,7</b> | <b>-0,8</b> | <b>-4,2</b>  |
| <b>SEKTORE-BANAKETA</b>                                          |              |             |              |
| <b>Ateratze-industriak</b>                                       | <b>130,6</b> | <b>2,9</b>  | <b>11,6</b>  |
| <b>Manufaktura-industria</b>                                     | <b>129,4</b> | <b>-0,8</b> | <b>0,4</b>   |
| Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria                   | 132,4        | 0,3         | 5,8          |
| Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza           | 116,8        | 0,7         | 3,1          |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak                             | 140,3        | 0,3         | -1,7         |
| Kokeak eta petrolio finitzen                                     | 142,4        | -7,1        | -13,2        |
| Industria kimikoa                                                | 143,9        | -0,1        | -6,6         |
| Botiken fabrikazioa                                              | 129,5        | -0,7        | 3,3          |
| Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak      | 120,5        | -0,2        | 8,9          |
| Metalurgia eta produktu metalikoak                               | 138,7        | 0,5         | 0,3          |
| Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa | 120,0        | -0,3        | 4,7          |
| Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa                     | 116,7        | 0,0         | 3,0          |
| Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa  | 115,1        | 0,0         | 4,9          |
| Garraioko materialen fabrikazioa                                 | 113,6        | 0,3         | 6,0          |
| Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa    | 118,4        | 0,5         | 4,4          |
| <b>Energia elektrikoa, gasa eta lurruna</b>                      | <b>124,1</b> | <b>-1,3</b> | <b>-25,8</b> |
| <b>Ura</b>                                                       | <b>131,9</b> | <b>-0,8</b> | <b>8,2</b>   |
| <b>INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA</b>                         |              |             |              |
| <b>Kontsumo-ondasunak</b>                                        | <b>130,3</b> | <b>0,5</b>  | <b>5,2</b>   |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak                                     | 118,9        | 0,4         | 5,8          |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak                                  | 132,2        | 0,5         | 5,1          |
| <b>Ekipo-ondasunak</b>                                           | <b>118,3</b> | <b>0,1</b>  | <b>5,1</b>   |
| <b>Bitarteko ondasunak</b>                                       | <b>133,5</b> | <b>0,3</b>  | <b>1,3</b>   |
| <b>Energia</b>                                                   | <b>134,9</b> | <b>-4,7</b> | <b>-21,1</b> |

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Abenduaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da helburu ekonomikoaren arabera sailkatutako ondasun-talde handi guztietan, *Energiaren* kasuan izan ezik, talde horretan % 21,1eko jaitsiera izan baitute prezioek. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 5,2ko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioen % 5,1eko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioen % 5,8ko igoeraren ondorioz. *Ekipo-ondasunen* prezioak % 5,1 igo dira, eta, azkenik, *Bitarteko ondasunen* prezioen kasuan, igoera % 1,3koa izan da.

## INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **93,10eko** estaldurarekin kalkulatu da.

---

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62